

2015. ekitaldirako aurrekontuen aurkezpena

2015. urterako 20.744.393,78€-tako aurrekontu bateratua aurkezten da. Udalaren, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuaren, Kirol Patronatuaren eta Berualaren aurrekontuen batuketa iaz baino %5 handiagoa izango da.

Aurrekontu orekatua da, hau da, 2015. urterako hartu ditugun konpromisoak eta daukaguzan zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko finantziario nahiko aurkezten dugulako.

Diru sarreren aurreikuspena egiterakoan zuhurtzia irizpidea izan dugu oinarri eta ziurtasunik ez daukagun sarrerak ez ditugu aurreikusi. Zuzeneko eta zeharkako zergak eta prezio publikoak aurrekusterakoan errolda fiskalak, azken urteko kitapenak eta eboluzioa eta kobrantzak izan ditugu kontuan. Transferentzia arruntak, ondare sarrerak eta inbertsio errealeen kasuan berriz, sail eta erakunde ezberdinen lanaren ondorioz aurreikusten diren sarrerak jarri ditugu.

2015. urte honetan %4,61 da zorpetze maila, 316.893,17€ ordaindu beharreko interesak izango dira eta 625.441,04€ amortizazioak. Guztira 942.334,21€ eta herri zorra 11.451.893,25€ da.

Udalaren aurrekontua bakarrik kontuan izan ezker 17.153.626,15€-tako da. Iaz baino 877.932,12€ gehiago baina 2011an baino oraindik 1.865.135,97€ gutxiago. Ia %10 gutxiagoko aurrekontu batekin argi dago herri honek dituen beharrezko guztiei erantzuteko zailtasun ekonomikoak ditugula oraindik.

Berualaren kasuan, Administrazio kontseiluak proposaturiko aurrekontua onartu da. Berualak 563.329,13ko aurrekontua dauka eta udalaren ekarpena 500.000€-tako izango da. 5 langile ditu eta ez da aldaketarik aurreikusten. Berualaren lehentasunak azken urteotan martxan dituen promozioak amaitzea eta zorrak bideratzea izan da. Baina honez gainera, bere helburuak alde zahararen biziberritzean kokatzen dira. Izan ere, 2015. urtean alde zaharrean jarduera ekonomikoak sustatzeko ekintza plan bat egingo da eta edertze planean agertzen diren ekimenak lantzen jarraituko dugu.

Kirol Patronatuaren kasuan, aurrekontua 1.202.742,50€-tako da eta udalaren ekarpena 583.000€ izango da funtzionamendurako eta 20.000€ inbertsioetarako. Kirola sustatzea, bizitza osasuntsua izatea gure herritarrak eta adin guztietan bizitza aktiboa izatea lortu behar dogu. Horretarako kirol instalazio egokiak mantendu behar ditugu eta kirola sustatzen dabenean taldeei laguntzen jarraituko dugu. 9 langile daukaguz eta ez da inongo aldaketarik aurreikusten 2015. urterako. 2015erako proiektuen artean, material kardiobaskularra berriztuko dugula eta jendarte aktiboagoa lortzeko Mugitu Bermeo programa landuko ditugula aipatu nahi ditugu. Era berean, artza frontoiko aldagelak berriztatzeko finantziarioa lortzeko ahaleginak egiten jarraituko dugu.

Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak, 4.865.648€-tako aurrekontua dauka 2015. urterako eta udalaren ekarpena kasu honetan 1.937.952€ izango dira. 77 pertsonako



plantila aurreikusten da. Politika sozialen inguruan pisu nabarmena dauka 3. Adinari bideratzen dizkiogun zerbitzuak. Zaharren egoitzaren gastua 3.138.312,89€ da eta ia %40 udalaren ekarpenaz finantzatzen da. Beste apustu inportante bat adineko herritarrei bideraturik etxez etxeko zerbitzua da. Zerbitzu honen kostua 695.228,85€ da. Azkenik, programa ezberdinak daukaguz adineko pertsonen ezintasunei aurre hartzeko. Beraz, udalaren ekarpenaren % 95 baino gehiago 3. adinera bideratuko ditugu. 2015. Urteari begira beste helburu garrantzitsu bat berdintasun plan berria diseinatzea eta ekintza plana adostea izango da herriko emakume talde ezberdinekin elkarbanatuz.

1go kapituluari dagokionez, 8.549.226,14€ inbertituko dira 2015. urtean. Urte honetan balorazio prozesuarekin jarraituko da, enplegu planen ondorioz sortutako 10 lanpostuak aurreikusten dira eta kale garbiketa, udaltzaingoen bulegoa, lanbide hastapena eta artxiboa indartuko dira.

Gizarte Ongizaketik, Kirol Patronatutik eta Berualatik landuko diren helburuez gain beste helburu batzuk ere landu nahi doguz 2015ean. Guzti hauek teknikari eta politikarien elkarlanaren ondorioz Midenet aplikazioan agertzen dira. Halan eta guztiz, batzuk aipatu nahiko nituzke:

Bermeo sozioekonomikoki indartzea da gure legegaldi honetako ardatz nagusietariko bat eta horregatik hainbat dira ardatz honetan daukaguzan konpromisoak:

- Herriko azoka sasoiko, kalitatezko eta produktu osasuntsuen erosketarako gune erreferente bat izateko urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Produktuen eskaintza zabalagoa lortzeko eta kontsumitzaile gehiagoren eroslekua izateko, azoka erakargarriagoa egin nahi dugu.
- Bestalde, gure herriko kontserba industriaren inportantzia azaleratzeko arrain azoka profesionalagoa eta indartsuagoa lortu nahi dugu.
- Itsas ondarea gure kulturaren parte garrantzitsu bat izanik hau zaintzea eta balorean jartzea administrazioaren konpromisoa izan behar du eta herritarren inplikazioa eta partehartzea funtsezkoa da. Proiektu hau indartzen joatea da asmoa.
- Merkatari eta ostalari elkarteekin elkarlanean jarraitu behar dugu, hauen lehiakortasuna lantzeko eta herriaren bizitasuna errekuiperatzeko.
- Eskualdean lana sortzeko proiektu estrategikoetan parte gara eta gainera enplegu planak lideratzen ditugu. Akuikultura eta lur bizi proiektuak bultzatzen jarraitu behar dugu, eskualderako proiektu estrategikoak direlako.
- Aita Guria gure herriak daukan leku erakargarrienerariko bat izanik, bere programazioa zabaldu behar dugu iaz hasitako bide berdinetik.
- Teknologia berrien bitartez gure eskaintza turistikoa hobetu nahi dugu.



- Gazteen gaitasunak hobetzeko programak landu nahi ditugu.
- Lanbide hastapena apustu izaten jarraitu nahi dugu. Egoera zaila duten gazteen formakuntza garrantzitsua delako.

Beste ardatz nagusietariko bat herri erakargarriagoa izateko eraldaketak egitean datza. Hauen artean:

- Gune beltzetan interbentzioak egin nahi ditugu
- Edertze planeko ekintzen exekuzioarekin jarraituko dugu
- Txukuntze lanekin jarraituko dugu (edukiontzietan, faroletan, jolas guneetan, hormetan, hiri altzarietan, jardineretan...)
- Argindarrean habakuntzak egin nahi ditugu
- Zerbitzu ezberdinetarako, lorazaintzan zein bide publikoetako baliabideetan inbertsioak egin behar ditugu, baita hiri altzarietan eta garbiketarako makinarian...)
- Auzoen komunikazioa hobetu nahi dugu
- Umeentzako aztertutako aterpe guneak
- Gazteen lokalen elkarbizitzarako gidaren jarraipena
- Bizikidetzaren araudiaren onarpena
- Animalien zaintzarako kanpainia bat martxan jarriko dugu
- Lurren kudeaketan egin beharreko esfortzuak egin beharko ditugu (Aritzatxu, Txibitxiaga, saihesbide)
- Aparkaleku disuasorio bat egokitu nahi dugu
- Udal eraikinaren konponketak (1 fasea) egin nahi ditugu eta bigarren fase baterako finantziazioa lortzea inportantea da
- Irisgarritasun planaren 1go fasea egiteko beharrezko inbertsioak egin behar ditugu
- Bermioko Institutoaren urbanizazioan hobakuntzak egin nahi ditugu
- Herriko zein auzoetako bideen konponketak egin behar dira
- Gaztelugatxeko proiektuaren jarraipena egin behar dugu eta udalari jagokozan ekimenak martxan jarri behar ditugu.

Gainera gure herria kulturalki oso aberatsa da eta denok honen parte eta jabe izatea lortu behar dugu, zainduz eta transmitituz.

- Kultura zaintzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu (musika, irakurzaletasuna, artxiboa, geure jaiak, taldeen laguntzak, adin guztientzako ekimenak, zine zaletasuna, euskara, ...)
- Euskararen erabilerak eta transmisioak kezkatzen gaituelako ekintza plana gauzatuko dugu: Ahotsak egitasmoa bultzatuz, Geurien be bai programarekin kirolean eta enpresetan euskara bultzatuz ...
- Udalerrri euskaldunen artean erreferente izaten jarraitzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugu. Barne antolakuntzan euskara sustatzea eta beste erakunde batzuekin euskaraz aritzea sustatu.



Azkenik, kudeaketa eredugarri baterako urratsak ematen jarraitu nahi dugu:

- Abisuen kudeaketa hobetzeko proiektua martxan jarri nahi dugu hurbiltasuna sustatzeko.
- Ekipamendu informatikoan berrikuntzak egin behar ditugu.
- Paper gabeko administrazioantz joateko urratsak eman nahi ditugu.
- Gardentasunean udal erreferenteen artean egotea lortu nahiko genuke.
- Helburu komunak landu behar ditugu, koordinazioa hobetuz sailen artean eta erakunde ezberdinen artean.
- Jendarte informatua eta konprometitua izan nahi dugu eta horretarako beharrezkoa da komunikazioan eta partehartzean ahaleginak egiten jarraitzea, kudeaketa eredu ezberdinak landu behar ditugulako eta hori da gure konpromiso nagusia.

